

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DULANTZIKO UDALA

#### Behin betiko onespena ematea kudeaketa eta bilketarako zerga ordenantzaren aldaketari

Udalbatzak, 2021eko uztailaren 7ko ohiko bilkuran, hasierako onespena eman zion kudeaketa eta bilketarako zerga ordenantzaren aldaketari.

Agiria jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsizat jotzen da. Hona hemen:

#### KUDEAKETA ETA BILKETARAKO ZERGA ORDENANTZA

##### I. Xedapen orokorrak

##### 1. Xedapen orokorrak

##### 1. artikulua

Udal honek bere zergak kudeatzeko eta biltzeko jarduketak ordenantza orokor honetara egokituko ditu.

Ordenantza hau Dulantziko udalerrri osoan aplikatuko da.

Zergen kudeaketa eta bilketa udal administrazioak egingo du, albo batera utzi gabe Foru Aldundiak edo Autonomia Erkidegoaren Administrazioak izan ditzaketen eskumenak eta orokorrean administrazio publikoekin egon daitezkeen lankidetzak formulak.

Era berean, udal administrazioak eskumena izango du ondorio horietarako udalerrria kide den elkarte erakunderen batek emandako zerbitzuak erabiltzea erabakitzeko.

##### II. Kudeaketa

##### 2. artikulua. Zerga egutegia

OHZ (Hirikoa eta landakoa): bi ordainketetan banatuta dago, lehenengoa ekainaren 15etik uztailaren 15era artekoa da eta bigarrena urriaren 15etik azaroaren 15era artekoa.

JEZ: Urriaren 15etik abenduaren 15era (Arabako Foru Aldundiak gauzatzen duen eroldaren arabera).

TMIZ: martxoaren 1etik apirilaren 30era.

Ura eta zaborra:

- 1. hiruhilekoa: Maiatzaren 1etik ekainaren 30era.
- 2. hiruhilekoa: Abuztuaren 1etik irailaren 30era.
- 3. hiruhilekoa: Azaroaren 1etik abenduaren 31ra.
- 4. hiruhilekoa: Otsailaren 1etik martxoaren 30era.

Ibiak: Apirilaren 1etik maiatzaren 31ra.

Musika Eskola: Matrikula eta hileko kuotak:

- 1. kuota: Ehuneko 10 uztailaren 1etik 31ra ordainduko da.
- 2. kuota eta hurrengoak: hilabete bakoitzaren lehenengo hamabost egunetan ordainduko da, urritik uztailera arte.

Hilerrria: Abenduko lehenengo hamabostaldian.

Terrazak: Ekainaren 1etik abuztuaren 30era bitartean ordainduko dira.

Igerilekuetako txartela: Apirileko lehenengo hamabostaldian.

Garajeak: Hilabete bakoitzeko hilaren 5ean.

### III. Prozedura

#### 3. artikulua. Alderdi orokorrak

Espedienteak izapidetzeko legezkotasun, ekonomia, bizkortasun eta eraginkortasun irizpi-deak beteko dira, eta era berean herritarrek egin beharreko izapidetzeak sinplifikatzeko lan egingo da eta herritarrek administrazioaren informazioa lortzea erraztuko da.

#### 4. artikulua. Ebazteko epeak eta esanbidezko ebazpena ez ematearen ondorioak

1. Ebazpena jakinarazteko gehienezko epea kasuan kasuko prozedurari buruzko arautegian finkatuko da. Prozedurari buruzko arauetan gehienezko epea ezarri ezean, sei hilabete baino lehen ebatzi beharko da.

Honela zenbatuko da epea:

a) Ofizioz hasten diren prozeduretan, hasteko erabakia jakinarazten den egunetik.

b) Interesdunak eskatuta hasten diren prozeduretan, agiria izapidetzeko eskumena duen administrazioaren erregistroan sartzen den egunetik.

Apartatu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko aitortenaren edo autolikidazioaren bidez hasten diren kudeaketa prozeduretan ez premiamendu prozeduretan; hain zuzen ere, premiamendu prozeduretako jarduketek preskribitzeko epea mugaeguneratu arte iraun dezakete.

2. Prozeduren iraupenaren gehienezko epearen barruan jakinarazteko betebeharra betetzat jotzeko ondorioetarako, nahikoa izango da ebazpenaren testu osoa dakarren komunikazioa jakinarazteko ahalegin bat egin dela egiaztatzea.

Prozedura arrazoi jakin bategatik etenda egondako aldiak (arau bidez zehaztu behar dira) eta Zerga Administrazioari egotzi ezin zaion kausa bategatik gertatzen diren atzerapenak ez dira konputatuko ebazteko epean.

3. Ebazteko epea edo Zerga Administrazioaren jarduketek iraun dezaketean epea etetea bidezkoa izango da honako inguruabar hauetako bat gertatzen denean:

a) Datuak edo txostenak eskatzen zaizkienean autonomia erkidegoko beste administrazio batzuei, Estatuari, beste autonomia erkidego batzuei, toki entitateei edo Europar Batasuneko estatueta administrazioei. Datu edo txostenak eskatzean hasiko da epearen etenaldia eta horiek jasotzean amaituko da, eta gehienez ere sei hilabete iraungo du. Eskaera Europar Batasunetik kanpoko estatuari egiten zaienean, epea hamabi hilabetekoa izango da.

b) Ezinbestez Administrazioak bere jarduketak bertan behera utzi behar dituzenean, ezinbesteko arrazoiak dirauen artean.

4. Halaber, honako hauek zergapekoari egotzi ahal zaizkion atzerapenak dira: Zerga Administrazioak bere eskumenen eremuan egiten dituen informazio eskaerei, errekerimenduei edo agertzeko deiei zergapekoak berandu erantzutea; zergapekoak berak eskaturik jarduketak geroratu edo atzeratzea, bidezkotzat jotzen den kasuetan. Osorik betetzen ez diren eskabideak ez dira jasotzat joko zenbaketa horren ondorioetarako, harik eta behar bezala bete arte, eta horren berri emango zaio interesdunari. Zenbaketa horren ondorioetarako, zergapekoari egotzi ahal zaizkion atzerapenen denbora egutegiko egunetan neurtuko da.

5. Alderdi batek eskatuta hasten diren prozeduretan, gehienezko epea berariazko ebazpena jakinarazi gabe mugaeguneratzeak arautegian ezarritako ondorioak izango ditu. Alde honetatik, zergak aplikatzeko prozedura guztietan berariaz arautu behar da hari dagokion presuntziazko egintzen erregimena.

Erregimena araututa egon ezean, interesdunek baietsizat jo dezakete euren eskaera Administrazioaren isiltasuna dela eta, Konstituzioan ezarritako eskatzeko eskubidea baliarazteko prozeduretan eta egintzak eta xedapenak aurkaratzeko prozeduretan izan ezik, horrelakoetan isiltasunak eskaera ezetsiko baitu.

Prozedura zergadunari egotzi ahal zaion kausa bategatik etenez gero, Administrazioak ohar-taraziko dio hiru hilabeteren buruan iraungitzaile ahal izango duela.

6. Ofizios hasten diren prozeduretan, ezarritako gehieneko epea berariazko ebazpena jakinarazi gabe mugaeguneratzeak prozedurari buruzko arautegian ezarritako ondorioak izango ditu.

Berariazko arautegirik egon ezean, ondorio hauek izango ditu:

a) Prozeduraren emaitza eskubide bat edo bestelako banakako egoera juridiko bat aintzatestea edo eratzea izan ahal bada eta Administrazioaren isiltasuna gertatzen bada, zergapekoak ezetsizat jo ditzake prozedurak eduki ditzakeen aldeko ondorioak.

b) Prozeduraren emaitza kontrako ondorioa edo karga izan ahal bada, prozedura iraungiko da.

7. Prozedura iraungitakoan, ofizios edo interesdunak eskatuta adieraziko da eta jarduketak artxibatzeke aginduko da.

Prozedura iraungitzeak ez du ekarriko berez Zerga Administrazioak bere eskubideak erabiltzeari uztea, baina iraungitako prozeduretan egindako jarduketek ez dute etengo preskripzio epea eta ez dira administrazioaren errekerimendutzat hartuko Foru Arauaren 27. artikuluko 1. apartatuan ezarritako ondorioetarako.

Iraungitako prozedura batean egindako jarduketak eta eskuratutako agiriak eta bestelako frogabideak haren inguruan edo beste zergapeko bati dagokionez hasitako edo geroago hasten diren beste prozedura batzuetan ere erabili ahal izango dira frogatzeko.

#### **5. artikulua. Espedienteak izapidetzea**

1. Eskariek indarrean dagoen araubideko betekizun guztiak betetzen ez badituzte interesatuek hamar eguneko epean zuzenketak egin beharko dituzte, eta adierazi egingo zaie horrelakorik egiten ez baldin badute eskaria ezetsi egingo dela eta espedientea artxibatu egingo dela.

2. Elkarren artean antzekotasun nabarmenak dituzten edo lotura estua duten prozedurak metatu egingo dira, eta horren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.

3. Espediente homogeenok ebaztean haste ordena kontuan hartuko da zehaztasunez.

4. Interesatuek eskatuta hasitako prozeduretan, interesdunei prozedurarekin jarraitzeko dokumentazioa eskatu zaienean eta hiru hilabete ondoren horrelakorik egin ez dutenean prozedura mugaeguneratuko da eta jarduketak artxibatu egingo dira. Horren berri emango zaie interesdunei.

#### **6. artikulua. Ebazteko epeak**

Zerga eta finantza kudeaketako prozedurak ebazteko eta eskubide ekonomikoak aintzatesteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, aplikatu beharreko araubidean bestelakorik zehaztu ezean. Udal administrazioari egotzi ez dakizkiokeen arrazoiak direla eta prozedura geroratzen baldin bada, atzerapen horiek ez dira ebazpenerako epearen barne egongo.

Apartatu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko aitorpenaren edo autolikidazioaren bidez hasten diren kudeaketa prozeduretan ez premiamendu prozeduretan; hain zuzen ere, premiamendu prozeduretako jarduketek preskribitzeko epea mugaeguneratu arte iraun dezakete.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat eginez, interesatuek udalean egindako eskariak honako epeetan eta ondorioekin ebatziko dira:

ZERGA KUDEAKETAKO PROZEDURAK	GEHIENEZKO EPEA	ISILTASUNAREN ONDORIOAK
Erreklamazio ekonomiko administratiboaren aurretiko berraztertze errekurtsoa tokiko zergen alorrean tokiko erakundeek emandako egintzen aurka.	3 hilabete	Ezestea
Pertsona fisikoek eta juridikoek hala eskatuta zergak ordaintzeko geroratzeak eta zatiketak emateko prozedura.	6 hilabete	Ezestea
Ogasun Publikoaren zorrak eta kredituak konpentsatzeko prozedura.	6 hilabete	Ezestea
Ondasun higiezin gainerako zergen onurak emateko prozedura.	6 hilabete	Ezestea
Jarduera ekonomikoen gainerako zergen onurak emateko prozedurak.	6 hilabete	Ezestea
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gainerako zergen hobariak emateko prozedura.	3 hilabete	Ezestea
Hiri izaerako lursailen balioa gehitzearen gainerako zergen onurak emateko prozedura.	3 hilabete	Ezestea
Udal zerbitzu publikoak emateagatiko tasetan onurak emateko prozedura.	3 hilabete	Ezestea

Administrazio isiltasunaren ondorioak bat ez baldin badatoz Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Arabako Zergei buruzko Foru Arauan ezarritakoekin, lege eta arauan xedatutakoa aplikatuko da.

Finantza kudeaketa eta eskubide ekonomikoak aitortzea

PROZEDURA	GEHIENEZKO EPEA	ISILTASUNAREN ONDORIOAK
Berandutze interesen erreklamazioak izapidetzea.	3 hilabete	Ezestea
Bidegabeko sarreren itzulketa.	6 hilabete	Ezestea
Fidantzak itzultzea.	3 hilabete	Ezestea
Pertsona fisikoek eta juridikoek eskatuta zerga arlokoak ez diren zorrak geroratzea eta zatikatzea.	6 hilabete	Ezestea

#### IV. Zerga kudeaketa

##### 7. artikulua. Alderdi orokorrak

Zerga kudeaketa bi ordenatan gauzatuko da, likidazioan eta bilketan.

Alkatetza Presidentetzaren eskumena da zergak kudeatzeko eta biltzeko beharrezko administrazio egintzak egitea, albo batera utzi gabe horretarako izan ditzakeen eskumenak.

Ordenantza honetan aurreikusi ez den guztirako Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuko da.

##### 8. artikulua. Errolda

Zerga egitateetan jarraikortasuna duten zergei errolda edo matrikula egin ahal izango zaizkie.

Altak egiteko subjektu pasiboen adierazpenak edo administrazioak egindako ikerketa ekintzak edo ofiziozko ekintzak erabiliko dira. Ondorioak indarrean jarriko dira zergaren ordenantzen xedapenen arabera zergak ordaintzeko betebeharra dagoenean, preskripzioa salbuetsiz, eta hurrengo ekitaldiko erroldan edo matrikulan gehituko dira behin betiko.

Bajak subjektu pasiboek egin beharko dituzte, eta egiaztatu ondoren erroldan behin betiko deuseztatuko dira. Ondorioak bajak aurkeztu eta hurrengo ekitalditik aurrera jarriko dira indarrean, ordenantza bakoitzean ezarritako salbuespenak izan ezik.

Zergadunek udal administrazioari egintza gertatu eta hogeita hamar (30) egun balioduneko epean jakinarazi egin beharko dizkiote erroldan egindako altak, bajak edo aldaketak sortu ditzaketan egokitzapen guztiak.

Ekitaldi bakoitzean erroldak edo matrikulak Alkatetza Presidentetzak onetsiko ditu eta horiek onetsi ondoren jendurrean jarriko dira legezkotasuna betetz interesatuek aztertu eta erreklamazioak egin ahal izateko hamabost (15) eguneko epean.

Jendaurrean erroldak edo matrikulak erakusteak interesatuen egintza bakoitzean esleituta dauden kuoten likidazioak jakinarazteko ondorioak izango ditu, albo batera utzi gabe horiek haien aurka ere erreklamazioak egin ahal izatea hamabost eguneko epean, borondatezko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Jendaurrean erakusteko egintza aurretiaz udaletxeko iragarki taulan adierazitako lekuan gauzatuko da.

### **9. artikulua. Zerga onurak ematea**

Salbuespenak, kenkariak, hobariak eta gainerako zerga onurak ematea, ukatzea edo geroratzea egikaritzeko zerga bakoitzaren araubide espezifikoak kontuan hartuko da eta prozedura arautua izango da, eta edonola ere ez da analogia onartuko salbuespenen, hobarien eta gainerako zerga onuren mugetatik haratago horiek aplikatzeko.

Legezketasuna betez aurkako aurreikuspenik ez baldin badago, zerga onurak ematea eskatu egin beharko da, eta horretarako Alkatetza Presidentetzari eskaera egin beharko zaio. Eskaerarekin batera hori arrazoitzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Orokorrean zerga onurak emateak ez du atzeraeraginezko ondoriorik izango, eta beraz, ondorioak interesatuak eskaria egin eta zergaren sortzapena lehenengo aldiz gertatzean jarriko dira indarrean.

Zerga salbuespena, murrizketa edo hobariak emateko eskaerak eta oro har zerga onurako edo dirulaguntzetako eskaerak ezetsi egingo dira (pertsone fisiko bati edo erakunde bati eman ahal zaizkionak banaka eta aurretiaz horiek eskaria egin ondoren) subjektu pasiboak eskaera egiten duen unean zerga betebeharrak egunean ez baldin baditu. Eskaera ukatzeko ebazpena arrazoi horretan oinarrituko da berariaz, eta behar bezala jakinaraziko zaio interesdunari..

Hala, salbuetsi egin ahal izango dira Gizarte Ongizateko Atalak onetsitako laguntzak, atalak berak aurretiaz txostena egin ondoren.

Denbora mugatu baterako eman diren zerga onurak ez dira aplikatuko horiek lortutako subjektu pasiboak bere zerga betebeharrak guztiak edo partzialak betetzeko hiru hilabete baino gehiagoko atzerapena izan duen ekitaldian.

Ez-betetze hori urtebete (1) baino gehiago luzatzen bada, administrazioak ofizios ezereztuko ditu onura horiek, betebeharren bat betetzeari utzi ziztaionetik aurrera, eta geroago horiek betetzeak ezin izango du ezerezte hori ondoriorik gabe utzi.

## **V. Dirubilketa**

### **10. artikulua. Alderdi orokorrak**

Zerga kredituak eta gainerako udal zuzenbide publikoko zergak modu boluntarioan biltzeko kudeaketa udalak berak egingo du ordenantza honetan aurreikusita ez dagoen guztian, eta hori guztia Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean eta maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuak onetsitako Arabako Lurralde Historikoaren bilketa araubidean eta bere aldaketetan ezarritakoekin bat eginez.

### **11. artikulua. Ordaintzeko epea**

Administrazioak egindako likidazioen ondoriozko zerga zorrak borondatezko epe honetan ordaindu beharko dira:

- Jakinarazpena hilaren 1etik 15era bitartean egin bada, jakinarazpenaren egun horretatik hurrengo hilaren 20ra arte edo hurrengo egun baliiodunera bitartean..
- Hilabete bakoitzaren hilaren 16tik hilaren azken egunera bitartean jakinarazitakoak hurrengo bigarren hilaren 5era arte, edo hurrengo lanegunera arte.

Jakinarazpen kolektibo eta aldizkakoen zorrak udalak zerga eta prezio publiko bakoitzerako ezarritako data eta epeetan ordaindu beharko dira.

**12. artikulua. Ordainketa geroratzea eta zatikatzea**

Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeako eskaera

Ordainketa aldian dauden zuzenbide publikoko, zerga zuzenbideko eta zerga arlokoa ez den zuzenbideko diru sarrerengatiko zorrak geroratu edo zatikatu egin ahal izango dira, salbu eta epigrafe honetako 2. paragrafoko baldintzak, ordaintzera behartuak hala eskatu ondoren.

Ezin izango da ordainketa geroratzeko edo zatikatzeako eskatu honako kasu hauetan:

1. Zergaren zenbatekoa 20 euro baino gutxiagokoa denean.
2. Legeek edo udal araubideak hori egitea debekatzen dutenean.
3. Espedientea izapidetzen jarraitzeko ezinbestean ordainarazpena zigilatze bitartekoen edo transakzio telematikoen bitartez egin beharreko zorrak direnean.

Zorrak geroratzea eta zatikatzea ebazteko eskumenak dituen organoa:

Ordainketa aldian dauden zorrak geroratzeko eta zatikatzeako eskariak ebazteko eskumena Alkatetza Presidentetzak izango du.

Zorrak geroratzeko eta zatikatzeako eskaria egiteko epea:

Ordainketa aldiko zor bat geroratzeko edo zatikatzeako eskaera ordainketa hura egiteko aplikatu beharreko araudian ezarritako epean egin ahal izango da.

Zorrak ordaintzeko epe berezirik ezartzen dituen araubide espezifikorik ez baldin badago, eskaera honako epeetan egin beharko da:

a) Udalak hilaren 1etik 15era bitartean jakinarazitako likidazioen ondoriozko zorretan, jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo hilaren 20ra bitartean, edo egun hori balioduna ez bada, hurrengo egun baliodunera arte.

b) Udalak hilaren 16tik azken egunera bitartean jakinarazitako likidazioen ondoriozko zorretan, jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo bigarren hilaren bostera arte edo, azken hori balioduna ez bada, hurrengo lehenengo egun baliodunera arte..

c) Jakinarazpen kolektiboa eta aldizkakoa duten zorretan udalak kobratzeko egutegian ezarritako bi hilabeteko epean, egutegiaren lehenengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Autolikidazio sistemaren bidez eska daitezkeen zorretan, borondatezko aldiko eskaera dagokion diru sarrera arautzen duen araudian borondatezko ordainketarako aurreikusitako epean aurkeztu ahal izango da.

Epez kanpo aurkeztutako autolikidazioetan geroratzea edo zatikatzea borondatezko epean eskatu dela ulertuko da bakarrik eskaerarekin batera epez kanpoko autolikidazioa aurkezten denean.

Zatikatatutako zorraren gutxieneko zenbatekoa.

Zatikatzeko epe bakoitzaren gutxieneko zenbatekoa ezin izango da 20 euro baino gutxiagokoa izan.

Zatikatzeko ordaintzeko modua.

Zatikatatutako zorraren subjektu pasiboek hilaren 1etik 5era bitartean ordaindu beharko dute zatikatutako zorraren zenbatekoa, udalak ordainketa zatikapenaren onarpenaren jakinarazpenarekin emandako kontu zenbakietan.

Emandako geroratzea ordaindu ezean egingo diren jarduketak:

Borondatezko epean eskatutako geroratzeetan, mugaegunera arte geroratutako zenbatekoak ordaintzen ez badira, betearazpen aldia hasiko da, bete gabeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Jarduketa hauek egingo dira:

Zorrak dituztenei ordainketa errekerimendu bat bidaliko zaie, geroratutako zorra epe hauetan ordain dezaten:

1. Jakinarazpena hilaren 1etik hamabostera bitartean egiten bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo hilaren 20ra bitartean.

2. Jakinarazpena hilaren hamaseitik azken egunera bitartean egiten bada, jakinarazpena jasotzen denetik hurrengo bigarren hileko 5era bitartean.

Zorra ezarritako epeetan ordaintzen ez bada, premiamendu probidentzia emango da.

#### VI. Arau hausteak eta zehapenak

Zerga arau hausteak kalifikatzeko eta arautzeko Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra eta horren aldaketak hartuko dira oinarritzat.

Zerga arau hausteei aplikatu beharreko zehapenak Zerga Araudiaren Foru Arau Orokorren, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren eta horren aldaketen arabera zehaztuko dira.

#### VII. Administrazio bidean dauden egintzak berrikustea

Administrazio bidean eta zerga alorrean emandako egintzak berrikusteko Zerga Araudiaren Foru Arau Orokorra eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra kontuan hartuko dira.

#### Azken xedapena

Zerga kudeaketa eta bilketari buruzko ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta indarrean jarraituko du harik eta bere aldaketa edo indargabetzea onesten den arte.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Dulantzi, 2021eko abuztuaren 27a

*Jarduneko alkatea*

*YOLANDA FERNÁNDEZ DE LARREA MEDINA*